

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduerak beharrezkoak dira honetarako: balorezko proposamena garatzeko, bezeroarengana iristeko, bezeroarekin harremanetan jartzeko eta diru-sarrerak sortzeko.

Funtsezko jarduerak 3 motatakoak izan daitezke:

→ **Produkzioa:** Gure produktua aurrera doan heinean **diseinua** aldatzen joango da, hasieran ispilu guztiak laukizuzenak eta txuriak izango dira eta denbora pasatzerakoan formak eta koloreak aldatuko dira, gure ispilua Uraldik ekoiztu eta diseinatuko digu. Diseinua enpresako bazkideek egingo dugu.

Hasieran gure enpresak ispilu **gutxi batzuk** ekoiztuko ditu eta denboraren poderioz enpresa aurrera ateratzen bada ispilu gehiago ekoiztuko ditugu. **Gure bidalketak** Correos eta Seur enpresak egingo dituzte, enpresa hauekin esperientzia onak ditugulako.

→ **Arazoak konpontzea:** Mirrornem enpresak arreta zerbitzu bat izango du, arazoren bat gertatzen bada: baliteke bezero batek gure produktua erosterakoan arazo batzuk edukitzea, esate baterako, gure web gunetik erosterakoan 2-3 egunetan entregatuko dela esaten du, izan daiteke produktua beranduago iristea eta horrek bezeroa haserretu dezake, hori gertatzen bada, bezeroak, gure web guneko telefonora deitu dezake, email bat bidali bezero arreta zerbitzura edo gure enpresaren txat pertsonalari idatzi. Bestalde, eskatutako ispilua iristen ez bada, puskatuta jasotzen badu bezeroak edo akats batekin iritxi bazaio enpresak ardura hartuko du eta arazoa konponduko du.

→ **Plataformako edo sareko jarduerak:** Plataformaren gestioa, etengabeko mantenua eta plataforma promoziontazea. Nohizbehinka **promozioak** egingo ditugu gure bezeroentzat, horrelako izango dira:

- Zure urtebetetzea bada %5eko beherapena.
- Ispilu bat erosteagatik 3 hilabeteko mantenu doaina izango duzu.
- Bi ispilu batera erosterakoan %20ko beherapena izango duzu.
- 5.000 ispiluetatik batek txartel berezi bat edukiko du eta txartel horrekin ispilu doain bat eramango duzu.
- Bezeroak jarri duen diru kopuruaren arabera, kupoiak egingo zaizkio beherapenekin.

Bezeroak lortzeko, iragarkiak egin.

Webgunea Elenek sortuko du informatika kurtso bat egin duelako, orduan doainik sortuko dugu. Gure enpresak **app** bat izango du. App horretan, ispiluak sortzen dituen lookak gordetzen ditu. Look bat gustoko baduzu eta gorde nahi baduzu beste egun batean izateko “favoritos” botoi bat egongo da. Gure **produktuaren etengabeko mantenuaz** gure enpresa, hau da, Mirrornem, arduratuko da. Hau da, bezeroak produktuarekin arazoren bat badu enpresak ardura hartuko du. Enpresaren ardura produktua esandako denboran entregatzea da, adibidez, produktua beranduago entregatzen bada bezeroak enpresara deituko du gertatutakoa azaltzeko. Ondoren, arazoa konpontzeko enpresak, enpresaren aliantzekin hitz egingo du arazoa konpontzeko.

Bezeroak produktua zuzenean lortzeko **komunikazio** desberdinen bidez lortuko du: bezeroak gure enpresako produktu bat erosterakoan, zuzenean gure web gunetik deitu beharko dute edota deitu gabe zuzenean erosi. Gure produktua beste enpresa batzuetan salduko dugu, orduan bertan ere erosi dezakete, adibidez, Leroy Merlin, Amazon eta Ikea dendeetan. Aurrerago, Mirrornem enpresak denda fisiko bat edukiko du, orduan bertan ere produktua erosiko dute. Gure produktua ezagutarazteko dendetako poster handietan azalduko da, bezeroak ikusteko.